



ATAUNGO UDALA




## 2024KO UDAKO HAUR-ZAINTZAN HEZITZAILE IZATEKO LAN-DEIALDIA

**Ataungo Udalak udan haur-zaintza zerbitzurako HEZITZAILEA kontratatu behar du, ekainaren 24tik uztailaren 19ra lan egiteko.** Interesa dutenek izena eman behar dute Ataungo Udalaren webgunean dagoen egoitza elektronikoaren bidez (“**Tramiteak online**”; <https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?ID=ESKA&idioma=eu-ES>), eta **izena ematearekin batera curriculuma** aurkeztu beharko da: tituluak, diplomak eta bestelako egiaztagiria (Sexu-delituen aurrekaririk ez duela adierazten duen agiria; Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatzen duen ziurtagiria). Nahitaezkoa izango da euskarazko C1 titulua edo baliokidea izatea, eta balioetsi egingo da Haur Hezkuntzako titulua izatea eta haur-zaintzan edo haur hezkuntzan lan egin izana. Izena emateko eta dokumentuak **aurkezteko epea apirilaren 19tik 29ra** izango da, biak barne. Epez kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko, eta baldintzak betetzen dituzten hautagaiei elkarrizketa egingo zaie.

## 2024KO HAUR-UDALEKU IREKIETAN ZUZENDARI ETA BEGIRALE IZATEKO LAN-DEIALDIA

**Ataungo Udalak haur-udalekuetako zuzendaria eta begiraleak kontratatu behar ditu, ekainaren 24tik uztailaren 19ra lan egiteko.** Interesa dutenek izena eman behar dute Ataungo Udalaren webgunean dagoen egoitza elektronikoaren bidez (“**Tramiteak online**”; <https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?ID=ESKA&idioma=eu-ES>), eta **izena ematearekin batera curriculuma** aurkeztu beharko da: tituluak, diplomak eta bestelako egiaztagiria (Sexu-delituen aurrekaririk ez duela adierazten duen agiria; Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatzen duen ziurtagiria). Nahitaezkoa izango da euskarazko C1 titulua edo baliokidea izatea, eta balioetsi egingo da zuzendari-titulua izatea, begirale-titulua izatea, hezkuntza-arloko ikasketak izatea eta udalekuetan edo gazteekin aritu izana. Izena emateko eta dokumentuak **aurkezteko epea apirilaren 19tik 29ra** izango da, biak barne. Epez kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko, eta baldintzak betetzen dituzten hautagaiei elkarrizketa egingo zaie.

### **Informazio gehiago:**

komunikazioa@ataun.eus  616758758


 @Ataungo\_Udala  Ataungo\_Udala

## 2024KO UDALEKUETAN PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA

**Ataungo Udalak 2024ko udalekuetan praktikak egiteko aukera eskaini nahi die herriko gazteei.** Interesa dutenek izena eman behar dute Ataungo Udalaren webgunean dagoen egoitza elektronikoaren bidez (“**Tramiteak online**”;  
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?ID=ESKA&idioma=eu-ES>), eta **izena ematearekin batera gurasoek edo tutoreek sinatutako baimena aurkeztu beharko dute. Epea apirilaren 19tik 29ra** izango da, biak barne, eta epez kanpo jasotako eskaerak eta agiriak ez dira onartuko.

Ataunen, 2024ko apirilaren 10ean.

### **Informazio gehiago:**

komunikazio@ataun.eus  616758758

 @Ataungo\_Udala  Ataungo\_Udala